



EUSKALDUNAK MOSKOŔAK?...

Euskaldunak oso ardozaleak gerala egia al da?... Nik baietz uste det. Euskaldunak munduko beste efietakoak baño edarizaleagoak eta ordiagoak gerala ere egia al da?...

Eztakit. Nik uste det ezetz. Euskaldunak munduko efi edarizalienak bezin edarizaleak gerala egia ote da? Ori neufutzea ere ezta efex. Baño esan genezakela uste det, gutxi gora-bera, munduko efi edarizalienak bezin edarizaleak gerala Euskaldunak.

Edarizaletasunaren okef-bide edo gaitzpide au Euskaldunai utzi erazteko bear aña lan egiten al degu? Ezta askoz gutxiago ere. Ona gure utsik aundiena: gure ajalakabekeria.

Zer egin bear degu bada?... Esango dizuet nik zer dan Euskaldun guztiok, egin dezakeguna: Ori da *irakurtzea* (*leitzea*). ZERUKO ARGIA'n Jainko lagun, esango dizkitzutenak *irakuri*. Nun-nai ordikeriari edo moskoŕkeriari buruz arkitzen dezutena *irakuri*.

Nik beñepein bakoitzean gutxi emango dizutet irakurtzeko; obe da pixkanaka irakurtzea.

Emakumeentzako ta gizeontzako, umientzako ta adintsuentzako, ez-konduentzako ta ezkongaiantzako gauz politik izango dira; batean bati fan-ta bat ta bestean beste bati.

Pixkanaka irakurtzen emango dizutet, aspertu etzaitezten.

Eta onerañokoa irakufi dezun ezkerok ez utzi zure eskuetatik papertxo au gañerakoa ere irakufi gabe.

Zure animaren eta gorputzaren etsairik gogoñenetako edariak dituzu.

Zure gorputza galdu ondorean zure anima ere su-lezera edo inpernura eramango dizute.

Basili Deunak dionez ardua lizunkeriaren elburua edo iturburua bezala da. Arduak loikeriari ateak idikitzen dizkio.

IZASKUN O. M. CAP.



Leiza'tar Juan Migel Aita, Irugarendaren ikuslari zana

1881'gañen Urtean jaio zan Aita Leiza. Amaika urtetatik amabitara zi-joanean sartu zan gure Lekarotz'ko Ikastetxean eta bere artantxe egin zuan bere ikastarok Teoloxia'ko urte batzuek Madrid'en Pardo'ko etxean ikasi zituan eta Lekarotz'era itzuli zan ikasi bidenabaf ango mutiltxoai erakustera. Oraindik Meza eman baño len Filipinas'etako Misiotara bialdu zuten. Ara juañ eta urte bat orduko Meza eman zuan eta Tagalo izkuntza